

# RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

## ELIKAGAIAK

2014ko HIRUGARREN LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa


Jakinarazpenen jatorria

Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak


### JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2014ko hirugarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 840 jakinarazpen izan dira. Horietatik 230 alertak izan dira (%27,5), 241 informazio-jakinazpenak (%28,5) eta 369 mugan egin diren ukapenak (%44).



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **24,5a Turkiakoak** dira eta jarraian **Txina** dugu: kasuen % **19a**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea **Espainia** izan da, % **15**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**30** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **Brasil**ek da jakinarazpen gehien sortu duena (% **28**).

### KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2014ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 840 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Kutsadura biologikoa	%27,5
Hondakinak	%22
Mikotoxinak/biotoxinak	%17,5
Iruzurrak	%9
Kutsadura kimikoa	%8
Metal astunak	%7,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	%6,5
Kutsadura fisikoa	%2



## KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **81,5**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **fruitu lehorrek** kutsaduren % **67a** eragin dute. Bestalde, kasu gehienetan (% **65,5**) **Asiatik** zetozen. Bigarren lekuan, **pikuak** (%**22**) eta bere jatorria **Turkia** (**100%**).

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **53** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **75,5**an. Ikuiluetako hegaztiak izan dira produktu protagonista %41ko kasuetan, %40,5eko kasuetan jatorria Europa zelarik. Beste salmonelei dagokienez, % **13a Salmonella enteritidis**i dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 80a eta %92ko kasuetan Europa izan da jatorria) eta %**11,5a Salmonella typhimurium**i (ikuiluetako hegaztiak eragin dituzte kasuen % 71,5a, eta % 100ean Europa izan da jatorrizko herrialdea).

Bestalde, **E.coli** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **16a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **bibalbioak (txirlak eta muskuiluak)**, % **50<sup>a</sup>**. **la guztiek europako** jatorria zuten (%83a).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**74a** dira eta medikamentuak %26a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**56**an eta gehienak (%**45a**) **asiarrak** dira.

**Metal astunei** buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **54**. Ezpatarraina protagonista izan da %48,5eko kasuetan eta jatorria Espainia %50ean.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	146	<b>Aflatoxinak</b>	119(81,5%)	fruitu lehorrak	77 (67 %)	Asia	50 (65,5%)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	232	<b>Salmonella sp.</b>	123 (53%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	93 (75,5%)	hegaztiak	37 (41%)	Brasil	15 (40,5%)
		<i>S.enteritidis</i>	16 (13%)	oilaskoa	12 (80%)	Europa	11 (92%)
		<i>S.typhimurium</i>	14 (11,5%)	hegaztiak	10(71,5%)	Europa	10 (100%)
		<b>E.coli</b>	37 (16%)	bibalbioak	18 (50%)	Europa	15 (83%)
		<b>Listeria</b>	37 (16%)	izokin ketua	19(51,5%)	Polonia	16 (84%)
<b>Metal astunak</b>	61	<b>Merkurioa</b>	33 (54%)	ezpatarraina	16(48,5%)	Espainia	8 (50%)
<b>Hondakinak</b>	183	<b>Pestizidak</b>	135 (74%)	barazkiak	73 (56%)	Asia	33 (45%)
		<b>Botikak</b>	48 (26%)	arrain eta itsaskiak	32 (66,5%)	Asia	31 (97%)